

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2011eko urtarrilaren 26a. VIII. urtea. 2.164. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Biharko greba orokorraren harira mobilizazioak izango dira Tolosan eta Leitzan

Arratsaldean izango dira; Tolosan 18:30ean Trianguloatik abitatuta manifestazioa egingo dute eta Leitzan 18:00etan plazatik

ELA eta LAB sindikatuek Tolosako alkateak greba deia egiteko jarritako kartelak kentzeko agindu duela salatu dute 03



HITZA

→ **Inauterien errepassoa.** Martxoaren 20a bitarte 'Jeiki!, Jeiki!' erakusketa ikusi daiteke Tolosako Aranburu jauregian. Herritarrek utzitako 2.000 argazki inguru bildu dituzte bertan Nestor Ardanaz (irudian) argazkilaria tolosarra-zuzendaritzapean. Era berean, herriko 215 dendetako erakusleihoetan ere Inauterietako irudiak bilduko dituzte. 05

Iker Karrera Mendi lasterkaria

«Nire aurtengo helburua Mont Blanc-eko ultratrail proba egitea da»

Iazko emaitza onak eta gero, Salomon taldeko partaide da Amezketako korrikalaria 04



HITZA

Beterriko Bertsolari Txapelketako kanporaketa, Asteasun

Aitz-Ondo elkartean izango da 20:30etik aurrera; lehenengo afaria egingo dute eta ondoren hasiko da bertsolarien lehia 06

Eusko Label txapelketako kanporaketa asteburuan

Leitzako Amazabal pilotalekuan izango da aizkora txapelketaren saioa igandean 12:00etan 06

Tolosa 2015 egitasmoaren webgunea berri dute

Atari «irekiago eta dinamikoagoa» eskaini nahi dute eta herritarrak «uneoro informatu» 02

Itxi dute Torquemadaren mintegian izena emateko epea

Otsailaren 14an hasiko da; antolatzaileek parte-hartzaileei 19:00ak baino lehen joateko eskatu dute 02

Oharra

Euskal gehiengo sindikalak deitu duen greba orokorrarekin bat eginez bihar, urtarrilak 27, ez da TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkaririk izango. Ostiralean, urtarrilaren 28an, argitaratuko da berriro ere TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA.

Torquemadaren mintegirako izen-ematea itxita

Erredakzioa Tolosa

Tolosaldean IKASTNek eta Tolosaldea Goi-mailako Lanbide Heziketa Institutuak antolatutako Nazioarteko Gaurkotasanari buruzko bigarren mintegiko izen-emate epea itxi dute jada; ez dira, beraz, diru-sarrera gehiago onartuko. Jesus Torquemada hizlari izango duen mintegiarekin, antolatzaileek «urreikuspen guztiak gainditu» dituzte, 250 lagunek baino gehiagok izena eman nahi izan baitute. Topic-en neurriek, ordea, 250 partaidetako muga jartzera behartu ditu antolatzaileak. Hauen artean asko dira joan den urtean ere bertan izan zirenak, baina 90 inguru berriak izango dira. Hemen «iaz parte hartu zuten ikasleek egin duten zabalitze-lana eskertzekoa» dela azaldu dute antolatzaileek.

Mintegia datorren otsailaren 14an hasiko da, arratsaldeko zazpitan, Topic-en. Parte hartuko duen lagun kopurua dela medio, antolatzaileek hasiera-ordua baino lehen parte-hartzaileak bertara daitezela eskatu dute; lehiatila 18:15ean zabalduko dute egitarauak eta agiriak banatzeko.

Irekiera-ekitaldian Gorka Igarua Tolosaldea Goi-mailako Lanbide Heziketa Institutuko ordezkariak, Jose Luis Elorza Eusko Jaurlaritzako Etengabeko Ikas-kuntzako Zuzendariak eta Ikastn zerbitzuko Gemma Zelaiak parte hartuko dute, Jesus Torquemadari ongi etorria eginez.

Azkenik, antolatzaileek parte-hartzaileei gogorarazi nahi diete mintegiaren lehenengo egunean ordain-agiriak aurkeztu beharko dituztela Topic-en.

Alderdien Legea salatu du berriz ere, ezker abertzaleak

Gaur 20:30ean egingo duten Osoko Bilkuran zinegotzi berri bat egongo dela adierazi du

Erredakzioa Leaburu-Txarama

Leaburu-Txaramako ezker abertzaleak Alderdien Legeak eragindako «egoera baztertzalea» salatu du beste behin ere. Izan ere, gaurko Osoko Bilkura deitu du udalak eta bertan, «Alderdien Legea probestuz Bide Berriak taldeko zinegotziak euren kide bati eman behar die lekua zinegotzi moduan».

Ezker abertzalearen hitzetan,

zinegotzi honen izendapenaren «helburu bakarra momentuz» urte betez itxita egon den Ostatu-kudeaketa kontratua onartzea izango da. Izan ere, orain bi aste Premiako Osoko Bilkura izan zen herrian eta bertan Ostatuaren kudaketaren kontratua arautuko duen administrazio baldintza zehatzen agiriaren proposamena onartu zuten, baina ezker abertzalearen hitzetan prozedura «legez kanpokoa» izan zen. «Ostatua itxita egotea ez dugu nahi baina legearen barnean burutu behar dira ostatuaren kudeketak, badaude beste bide legalak hori burutzeko, baina ez herriak aukeratu ez duen gizona laugarren zinegotzi moduan jarriaz», argitu dute.

GIZA BALIABIDE TAKO TEKNIKARIA (Erreferentzia: EE11-GBT)

Donostialdeko enpresa talde batek Giza Baliabideetako Teknikaria behar du. Lanpostua Giza Baliabideak saillean kokatuko da eta, taldeko langileen administrazioari eta Giza Baliabideen kudeaketari lotutako gaiiez arduratuko da.

Eskatzen da:

- Unibertsitate mailako prestakuntza.
- EGA edo baliokidea den euskara maila.
- Giza Baliabideetako gaietan esperientzia (nominak, kontratuak, aukeraketak, prestakuntza, ...).
- Ofimatika programak erabiltzaile mailan ezagutzeta.
- Giza Baliabideen kudeaketarako programa informatikoaren ezagutza baloratuko da.

Eskaintzen da:

- Amatasun ordezkapenerako kontratua.
- Egun osoko lanaldia.
- Lanean berehala hasia.

Bidali Curriculum Vitae zehatza, urtarrilaren 28a baino lehen, gizabaliabideak@arduna.net helbide elektronikora. Ez ahaztu erreferentzia zehatzea.



Webgune berriak honako itxura izango du hemendik aurrera. HITZA

Tolosa 2015 egitasmoa «eraberrituta» dator internet bidez

Tolosa 2015 bulegoak kudeatuko du ataria, webgune «irekiago eta dinamikoagoa» eskaintzeko

Erredakzioa Tolosa

Tolosa 2015 webguneak aurpegi berria izango du hemendik aurrera. «Aurretik urruturiko bidean pauso bat gehiago» emateko asmoz, itxuraldatuta dator interneteko txokoa. Hasiera batean sortutako webguneak «herritarrek plan estrategiko batean parte hartzera gonbidatzen zituen», baina orri berriak etorkizuneko plan bat erakusten die herritarrei. Horrela beraz, webgune be-

rrituak «plan estrategikoaren garapena gardentasun osoz erakutsiko du», herritarrek «uneoro» informazioz hornituz.

Sei atal herritarrei zabalik

Tolosa 2015 proiektua duela bost urte abiarazi zuen udalak, «herri jasangarriago bat lortzeko bidean». Lan honetan hainbat bilkura antolatu zituzten eta orotara erakunde, talde eta elkarte desberdinetako 300 lagun baino gehiagok parte hartu zuten egitasmoan. Web orriko lehenengo atalean adostasun prozesuaren garapenaren berri izango du bisitariak, eta Tolosako Udalak lortu nahi dituen helburuak ezagutzeko aukera ere izango da. Herri partaidetzari zuzenduriko txokoa, berriaz, udalak onartutako

konpromisoen agiria izango da eskuragarri.

Albisteek ere izango dute euren lekua udalaren proiektu honetan, eta ekimen berriak antolatzeko dauden heinean, hauei buruzko informazioa zintzilikatuko dute web orrian. Honekin lotuta, tolosarrekin T15 komunitateratu ahal izango dute nahi izanez gero. Datu batzuk eman eta norberak bere helbide elektronikoren edo sare sozialaren bitartez jaso ahal izango du azken proposamenei buruzko informazioa.

Azkenik, jasngarritasuna hizpide duen atal bat ere izango du web orriak. Bertan garapen jasangarria, klima aldaketa, bio-niztasuna eta mugikortasuna izango dira gai nagusiak, besteak beste.

→ Laburrak

Gizonezkoentzako sukaldaritza ikastaroa

TOLOSA > Berdinbide elkarteak gizonezkoentzako bigarren sukaldaritza ikastaroa antolatu du La Jara elkartearen. Elkartearen asmoa gizon-emakumeek etxeko lanak banatzeko denez, besteak beste gizonezkoek zuzendua da ikastaroa. Otsailaren 1, 3, 8 eta 10ean izango da, 19:30etik 21:30era bitartean.

Matrikula epea zabalik Samaniego Ikastetxean

TOLOSA > Samaniego Ikastetxean 2011/2012 ikasturterako matrikula egiteko epea urtarrilaren 31tik otsailaren 11ra izango da. Argibideak: 943651063/688603351.

Kantu-jirako entsegua ostiralean, Musika Eskolan

TOLOSA > Urtarrileko azken larunbateko kantu-jirako entsegua hilaren 28an izango da Musika Eskolan, iluntzeko 8etatik aurrera. Aurtengo lehen kantu-jira hilaren 29an izango da, 12:00etan Tontokaletik hasita, Tarragona soinu-jolea eta bere ikasleekin.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Pianoa.** Ringway TG 8865 markako piano digitala saltzen dut. Interesatuak dei dezatela 659 40 85 20 telefonora.

MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta
Bataioak, Jantziak...

Jatetxea

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

Tolosan eta Leitzan mobilizazioak deitu dituzte

Greba orokorraren harira, eguerdian Iruñean eta Donostian manifestazioak egingo dira; arratsaldean berriz, Tolosan eta Leitzan

Eragile desberdinek kalera ateratzeko deia luzatu diete eskualdeko herritarrei

Asier Imaz Ekonomia

Euskal gehiengo sindikalak biharko greba orokorra deitu zutenetik, Tolosaldeko eta Leitzaldeko lantokietan bilera eta asanbladak egin dira. ELA, LAB, STEE/EILAS, EHNE eta HIRU sindikatuen esanetan, «bilkuretan nabaria izan da euskal langileok deialdi honen arrazoiei emandako atxikimendua eta sotsengua».

Eskualdeko hainbat eragilek ere bat egin dute sindikatuek dei-

tutako greba orokorrarekin. Horren adibide dira AHT Gelditu! Elkarlana, Euskal Herria Sozialista eta Bilgune Feminista. CGT, CNT eta ESK sindikatuek ere kalera irteteko deia egin dute eta baita Leitzako hautetsi independentistek ere, Nafarroako ezker abertzalearekin bat eginaz.

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariko lantaldeak bere aldetik, greba orokorra egingo du. Ondorioz, bihar ez da egunkaririk egongo.

Biharko mobilizazioak

Tolosaldeko langile eta ikasleak pikete informatiboetan eta manifestazioetan parte hartzeko aukera izango dute, goizean goizetik hasita.

05:00etan, Usabal kiroldegitik pikete informatiboak aterako dira. 08:30ean, Trianguloa plazatik irtengo dira piketeak, herrian barrena ibiliko direlarik. 12:00etan lurralde mailako manifestazioa egingo da Donostian. Horretarako, eskualdekoak 12:00etan Anoetako futbol zelaiaren inguruan elkartzeko dira. 18:30ean, azkenik, eskualdeko manifestazioa irtengo da Trianguloatik.

Leitzarrak eta aresoarrak, eguerdian Iruñera deitu dituzte. Arratsaldean berriz, 18:00etan hain zuzen, Leitzako plazatik manifestazioa irtengo da.



Urtarrilaren 27an, bihar, eskualdea gelditzea espero du euskal gehiengo sindikalak. A. IMAZ

Jokin Bildarratzen jarrera salatu dute ELA eta LABek

Eragile desberdinek bat egin dute euskal gehiengo sindikalak deitu duen biharko greba orokorrarekin

ELA eta LAB sindikatueta ordezkariek prentsurrekoa eskaini zuten atzo Zumarragan. Bertan, Goierri eta Tolosaldeko langileei bihar kalera ateratzeko eskatu zieten. Jokin Bildarratzen ere hizketagai izan zen ordea. Tolosako alkatearen jarrera salatu zuten agerraldian: «Publikoki eta hitzez adierazpen eta pentsakera guztiak kalean aldarrikatze eskubidea plazaratzen du, baino bestalde, ekintzetan udaletxeko langileak diren garbitzaileak beldutzera dituzte kartelak kentzera, gurekin liskarrak sortuz. Non dago deialdia libreki egiteko eskubidea? Kartelak zuloekin ere ezin al dira pegatu? Ala udaletxea izan behar du ekitaldi edo mobili-



Euskal Herria Sozialista aldirikako kideak Tolosan. ITZEA URKIZU

zazioaren babesle? Hori al da adierazpen askatasuna?».

Eragileen deialdiak

Euskal Herria Sozialista aldirikariak grebara ateratzeko deia egin du, *Pentsio erreformari ez! PSOE-ren gobernuaren, patronalaren eta bankaren eraso guztiei ez!* goiburupean. Honekin batera, ekintza sindikalaren batasuna aldarrikatu dute.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko Bilgune Feministak bere aldetik,

emakumeek pentsio duina izan behar dutela aldarrikatu dute. Lehen ere, «kaltetuenak eta ahaztuenak» eurek izaki. Bihar kalera irteteko eskatu diete emakumei.

AHT Gelditu! Elkarlanak azkenik, greba orokorrean parte hartzeko eskatu du. Euren esanetan, AHTren proiektuak zerikusi handia du murrizketa sozial eta pentsio plan publikoen kitapenarekin. Iazko Osakidetzaren murrizketak AHTra bideratu dituztela azaldu dute, adibide gisa.

↓ Atxikimenduak

BESTEAK BESTE

- Ibarako Uzturpe ikastola.
- Irurako ikastola.
- Tolosako partzurgoko haur eskola.
- Anoetako ikastola.
- Elduingo Munsko Paper.
- Tolosako Lankorain ikastola.
- Ibarako Mandriles Cicarsa.
- Adunako Unipapel.
- Lizartzako Casa Eceiza.
- Albizturko Antalis.
- Irurako Industrial Borobil.
- Txaramako Zuhazki.
- Ibarako Ebaki Lan.
- Tolosako Udala.
- Irurako Talleres Guibe.
- Tolosako Hirukide ikastetxea.
- Asteasuko Urbar Ingenieros.
- Ikaztegiako Man Vehiculos Industriales.
- Villabonako Jesusen Bihotza ikastola.
- Adunako Camepak.
- Belauntzako Cadinox.
- Belauntzako Inoximek.
- Amezketako Aralar papele-
ra.
- Asteasuko Gamesa.
- Zizurkilgo Udala.
- Tolosako Boinas Elosegui.
- Lizartzako Insalus.
- Belauntzako Reprocel.
- Anoetako Tarte.
- Leitzako Sarriopapel.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

EZAGUTU WEBGUNE BERRIAK

www.TOLOSALDEA.hitza.info

www.IBARRALDEA.hitza.info

www.ALEGIALDEA.hitza.info

www.LEITZALDEA.hitza.info

www.TOLOSA.hitza.info

www.ANOETALDEA.hitza.info

www.VILLABONA-AIZTONDO.hitza.info

Iker Karrera ◊ Mendi lasterkaria

Iker Karrera amezketarra luzera handiko mendi lasterketak egiten ari da azken bi urteetan eta aurtengorako Salomon taldearen eskaintza jaso du. Talde horretan «lasterkari onenekin» dagoela dio

«Ikasteko aukera izugarria da Salomon taldean egotea»

Imanol Garcia Amezketara

Iker Karrerak (Amezketara, 1974) hainbat urte daramatza mendi lasterketei lotuta, atsedendaldi bat tarteko. 2003an egin zuen lehena eta hortik hainbat egin zituen. Euskal selekzioarekin 2006an Espainiako Kopan parte hartu zuen, hirugarrena eginez. Ondoren atsedena hartu zuen bi urtez. 2009an ekin zien berriro lasterketei, baina oraingoan maratoloak baino luzeagoak diren probetan, ultratrail izenekoak. Iaz helburua Ehun Milak proba izan zen, baina bertan behera utzi behar izan zuen, lasterketan lehen postuan zihoala. Iaz egindako beste hainbat probetan lortutako emaitzei esker, Salomon taldearen eskaintza jaso du aurtengorako.

Nolakoa izan zen izakozko urtea?

Ehun Milak ziren helburu nagusia eta beste lasterketa batzuk egin nituen horiek prestatzeko. Sei lasterketak egin nituen eta emaitzak hobetu daitezke, baina hiru irabazi nituen, Costa Bravan bat eta Pirinioetan beste biak, bat Carros de Fuego izenekoak. Cavalls del Vent proban hirugarren egin nuen eta esan daiteke hori izan zela emaitzarik onena, lasterketa horretan jende oso ona zegoelako.

Eta hortik etorri zen Salomon taldearen eskaintza?

Aurretik bazegoen harremana ere. 2010ean materiala eman zidan, arropa, zapatilak... Orain,

iazko emaitzak ikusita, eta aurtengoari begira, Salomonetik deitu zidaten eta beraien taldean parte hartzeko eskaintza egin zidaten.

Talde horretan egoteak profesionala izatea esan nahi du?

Salomon taldean mundu mailan punta-puntan aritzen direnak daude eta batzuk profesionalak edo erdi profesionalak dira. Gero, gainontzekoak, Espainiako Taldean gaudenak, bakoitzak bere lana du eta hortik jaten dugu. Salomonek lasterketetako gastu guztiak ordaintzen dizkigu, bai izen-ematea, bai bidaiak... eta gero behar dugun material guztia. Bakarren batzuekin, zenbait urteetan konpromisoa dutenak taldearekin, diruaz hitz egingo dute, baina nire kasuan ez dut ezer kobratuko bertan egoteagatik. Ematen dutena ez da gutxi, batez ere zapatila asko erretzen ditugu eta. Gainera, lasterketa garrantzitsuetan parte hartzeko aukera ematen dit. Laguntza hau gabe, zaila izango litzateke niretzat horietan parte hartzea. Nire aldetik egin beharreko batzuk izango ditut, adibidez, Mont Blanc-eko ultratraila. Hain justu, nire aurtengo helburu nagusia da hori.

Eta zuretako, lorpen bezala, zer suposatzen du Salomon taldeko partaide izateak?

Futbolari bati bere zonaldeko lehen mailako taldeak deitzea bezala da. Mundu honetan gabiltzar-

nontzat Salomon da talde indartsuena, bertan daude lasterkari onenak. Beraiek deitzea jaso nezakeen gonbidapen onena da. Talde kontzeptuari lotuta, Salomonen egonik munduko onenak, talde horrekin eta jende horrekin lehiaketetan parte hartzeak ikasteko aukera izugarria emango dit. Nola entrenatzen duten, nola zaintzen diren... Aurrerapausoa emateko aukerarik onena da. Onenen ondoan zaudenean beti zerbaite gehiago ikasteko aukera ematen du.

Ultratrail probetan ezagunena da Mont Blanc-ekoa?


Europa mailan eta munduan ere esan daiteke dagoen ezagunena dela eta denak bertan egon nahi dute. Ultratrailen munduan Mont Blanc-eko proba futboleko Champions-eko finala jokatzeko bezala da. Proba hori egiteko aurretik justifikatu egin behar duzu lasterketa batzuk eginak dituzula. Jende asko prestatzen da proba horretara joateko aukera izateko. Baina hainbeste jendek ematen duenez izena, denak ez dira sartzen.

Entrenamenduak nola izaten dira?

Orduak eta orduak sartzea.

Egunero aritzen zara?

Egunero ez da komeni. Atsedena hartu behar da. Entrenamenduen zati oso garrantzitsua da atsedendialdi tartekatzea, bestela leher eginda geldituko zara. Astean bost egunetan aritzen naiz beti, eta denboraldiko mementoaren



HITZA

arabera seitan ere bai. Zazpigarrenean atsedena hartu behar da. Lanagatik astean zehar saio motzagoak egiten ditut eta asteburuak kasik horretarako erabiltzen ditut.

Hemengo mendietan entrenatzen al zara?

Bai, gainera hemen zortea dugu. Etxetik atera eta mendia dugu, gainera orduak egiteko aukera ematen duena. Aralarra joaten zara eta orduak egiteko aukera duzu, ibilbideak daude. Gero Pirinioak daude bi ordu eta erdira, asteburuetan joateko. Ahal dudan guztietan Pirinioetara joaten naiz, burua pixka bat oxigenatze-ko balio duelako eta altueran zerbaite entrenatzeko.

Mendian korrika egiteak bere zailtasunak ditu. Nola lantzen da hori?

Ez dakit. Nire kasuan, baserrian jaioa naiz, txiki-txikitatik mendian ibili naiz. Berez egiten joan naizen lan bat da; beti mendian gora eta behera ibiltzea, eta korrikan. Txikitatik gorputza ohitu egiten da hor ibiltzera eta niri zerbaite naturala egiten zait, ez dit esfortzua suposatzen leku teknikoetan korrika egiteak. Eta hori abantaila da. Asfaltuan bakarrik ibiltzen zen jende bat ikusten da orain lasterketan, mendiarekin harremanik izan ez duena. Leku teknikoetan, eta batez ere aldapa behera, ingurunea ez dutela menperatzen nabaritzen da, eta hor tartekak ateratzen dira. Teknika on bat baduzu, konfiantza duzu eta badakizu hanka non jarri. Askok irabazten duzu horrela, baina lesioak saihesterakoan ere.

BERRIA taldeak zure laguntza behar du

HITZAK inoiz baino irakurle gehiago ditu, baina inoiz baino baliabide ekonomiko gutxiago. Interneten eta paperean, gure komunikazio proiektuak berriro eta indartu ditugu udazkenean. Apustu hau aurrera ateratzea da, zuekin batera, gure erronka.

Ekarpena egiteko bideak

50 € • 100 € • edo nahi duzun kopuruarekin

Lagundu gaitzazu ekonomikoki

- Transferentzia Euskadiko Kutxan: 3035 0060 48 0600113162 (izen-abizenak zehaztu)
- Kreditu txartelaren bidez: zuzaraberria.info webgunean

Bihar ere euskaraz bizitzeko tresnak izan ditzagun!

berrieta.info



berria taldea



Erakusketako argazkiak euskarri desberdinetan ikusi ahal izango dira. | URKIZU

Inauteriak girotzeko aukera Aranburu jauregian

Itzea Urkizu Aisia

Aurtengo Inauterietarako hilabete pasatxo falta dela, ikusgai da jada *Jeiki! Jeiki!* erakusketa Aranburu jauregian. Joan den ostiral iluntzean erakusketako antolatzaileen eskutik izan zen aurkezpena, eta martxoaren 20ra bitarte joan ahal izango da ikustera, asteartetatik igandetara.

Udaleko arduradunek «Inauterietatik erakusketa bat merezi dutela askotan pentsatu» izan dutela azaldu zuten, eta «festa hauen zirrara gorputzean sartzea erraza ez den arren», erakusketak inauterietan xarma bildu eta transmititzea helburu duela azaldu zuten. Guztira 2.000 argazki inguru bildu ditu Nestor Ardanaz erakusketaren diseinatzaileak; hauetarik 1.500 herritarrek utzitakoak dira, eta oraindik ere argazkiak jasotzeko prest daude antolazailak:

«herritarrek parte hartzea nahi dugu». Bestalde, inauteriak girotzeko tresna eta bidea ere izango dela adierazi zuen Jokin Bildarratz alkatea; lan horretan, erakusketaren beraren izenak ere lagunduko du, Dianako abestia baitakar gogora.

Topic-en eta dendetan ere bai Erakusketa hiru bide desberdinetatik zabalduko da. Aranburu jauregioko gain, Tolosako 215 dendetako erakusleihotan ere Inauterietako argazki desberdinak ezarriko dituzte. Gainera, Topic-eko Anbigua gunean erakusketaren hirugarren atala izango da. Bertan noizbait txotxongiloak edo panpinak mozorroen osagarri izan direneko Inauterietako argazkiak erakutsiko dituzte.

Erakusketaren inguruan galdere-jokoa ere prestatu dute. Gazte zein helduentzat zuzendua da

jokoa, eta koloreen arabera zortzi zailtasun maila izango dituzte Inauterietatik buruzko galderek. Galdere hauen erantzunak, hain zuzen ere aipaturiko dendetako erakusleihotan aurkitu beharko dituzte jokalariek, maila bakoitza argazkiaren kolorearekin lotuz.

Honen harira, otsailaren 5ean deialdi berezia izango da gaztetxentzat. Herriko aisialdi taldeen laguntzaz, Aranburu jauregioko atarian bilduko dira 17:00etan, eta adinaren arabera taldeak egingo dituzte jolasteko. Amaitzeko, meriendatxoa banatuko zaie parte hartzaile guztiei.



Erakusketarako gargantua hau berreskuratu dute. | URKIZU

TOLOSako EUSKAL Eskola Publikoa

SAMARIE | **ORDIXE**

www.samarie.org | www.ordixe.org

www.euskalherriko-plaza.com | www.euskalherriko-plaza.com

11. Martxoaren 11tik 17. Martxoaren 17ra

Euskaratik eta Euskaraz

Matrikula epea: urtarrilaren 31tik otsailaren 11ra

www.euskalherriko plaza.com

Amurrio
Orio
Bartzelona
EDONORA!

Probatuz gero gustatu egingo zaizu!

Kalitatezko produktuak • Konfiantzazko ekoizleak eta zerbitzua
Erosketak edonon jasotzeko aukera

Euskal Herriko produktuak, ekoizlearengandik zure etxera

Tolosaldea eta Leitzaldea



Giro bikaina jarri zuten Andoaingo kanporaketan. HITZA

Doneztebe eta Donelontxo taldeak Asteasun etzi

Afalostean Beterriko IV. bertsolari txapelketako bigarren kanporaketa jokatu da Aitz-Ondo elkartean

Eneritz Maiz Bertsolaritza

Ostiralean jokatu zen Beterriko IV. bertsolari txapelketako lehen kanporaketa. Bigarren kanporaketa mutilen txanda izango da. Hauek, ostiralean Asteasuneko Aitz-Ondo elkartean dute zita. Lehen kanporaketa Andoainean izan zen. Bertan Ageda Deuna taldea, Alaia Martin, Jone Uria eta Miren Amurizak osatua eta Donelutxi taldea, Uxue Alberdi, Ainhoa Agirreazaldegia eta Onintza Enbeitak osatua izan ziren.

Andoain txartel guztiak saldu ziren eta giro ezin hobean eman zioten hasiera txapelketari. Baina talde batek bakarrik du aurrera egiteko aukera eta kasu honetan, Donelutxi taldeak lortu zuen Villabonan jokatu den finalerako txartela.

Aurreko edizioetan bezala, saioa goizeko ordu bata eta erdiak arte luzatu zen, eta antolatzaileen esanetan «bertaratu ziren guz-

tiek benetan estimatu zuten bertsolari gazteek egindako lana». Bi taldeek elkarrekin izandako lehia bizia izan zen baina, «entzuleek garbi samar izan zuten botua nori eman. 76 lagunek eman zuten botua eta haietatik 53k Done-lutxi taldearen alde egin zuten, hots, Alberdiren, Agirreazaldegiren eta Enbeitaren alde» diote.

Txartelak salgai

Afari baten bueltan ongi pasa nahi duenak Asteasun du aukera paregabea ostiralean. Bapo afaldu eta ondorengo postrea ezin hobe izango da. Sei bertsolari bi taldeetan banatuta ariko dira desafio batean. Mozorroturik eta umore ona zabaldu asmoz gerturatuko dira. Alde batetik, San Esteban edo Doneztebe izenaren pean, Jon Martin, Iñigo Izagirre *Olabe* eta Iñaki Gurrutxaga izango dira eta beste aldetik, Ander Lizarralde, Jokin Labayen eta Unai Muñoz. Gai jartzaile lanetan Jon Zaldua ariko da.

20:30ean izango da afaria eta txartelak oraindik salgai daude. Besteak beste, Asteasuko Patxine tabernan eta Mattin Liburu dandan, edo 943 30 07 33 telefono zenbakira deituz ere gordearaz litezke aurretik ordaindun gero.

→ **Laburrak**

AHT-ren lanen inguruko bilera informatiboa gaur

TOLOSA › Gaur 20:00etan Tolosako Olarrain auzoko elkartean, Abiadura Handiko Trenaren obrak direla eta egin beharreko akten altxamenduen inguruko bilera informatiboa egingo dute. Bilera irekia izango da eta AHT-ren obrekin kalte-tuak izan direnek edota interesa dutenek bertan parte hartzeko aukera izango dute.

Herrigintza elkarteko urteko batzarra etzi

IKAZTEGIETA › Urteko ohiko batzarra egingo dute etzi Herrigintza elkartean. 20:00etan emango zaio hasiera eta honako gai ordena izango da: aurreko aktaren irakurketa eta onarpena, egokia bada; urteko balantzea; bazkideen alta eta bajak eta bukatzeko galdeske. Herrigintzako bazkide guztiei dei egingen zaie bertan parte hartzeko.

Etzi Jolastoki Jubilatuko elkartean inaugurazioa

BERROBI › Ostiralean, hilaren 28an, Berrobiko Jolastoki Jubilatuko Elkarteko tabernaren inaugurazioa izango da. 17:00etatik aurrera zabalduko ditu ateak. Maria Dolores Cevallosek hartu du bertako zerbitzua aurrera eramateko ardura. Berrobiko Udalak herritar guztiei dei egin nahi die ostiralean izango den inaugurazioan parte hartzeko.

Sukaldaritza ikastaroa gaur Ibaier elkartean

ZIZURKIL › Amasako Iturri-goxoko sukaldaria den Jokin Zabaleran eskutik gaur Ibaier Elkartean izango dute saioa. Jesusen Bihotza ikastolako ikasle, guraso eta ikasleentzat da eta 17:30etik 19:30era izango da. Osagaiak sukaldariak emango ditu. Hiru plater presatuko dira eta 19:30etatik aurrera presatutakoa dastatzeko aukera izango dute.

Binakako aizkorako saioak Leitzan jokatuko dira

Igandean 12:00etan hasiko dira Eusko Label binakako txapelketako kanporaketak Amazabal pilotalekuan

Erredakzioa Leitza

Eusko Label Binakako Aizkorako bat, igandean Leitzan izango da 12:00etatik aurrera Amazabal pilotalekuan. Urrezko, zilarrezko eta gazteen mailako kanporake-

tak jokatuko dira. Urrezkoen mailan, Larretxea aita-semeak, Juan Joxe Lopez Azpilikueta eta Ander Erasunen aurka ariko dira. Bikote irabazlea zuzenean pasako da finalerdietara eta besteak ere aukera izan dezake.

Zilarrezkoen mailan berriz, Arkaitz Olano leitzarra eta Axier Pellejero aresoarrak osatutako bikotea, Kañamares II.a eta III.aren aurka ariko dira.

Gaztekoen mailan, Eneko Saralegi leitzarra eta Iker Vicente, Eloi Kortxero eta Julen Larraeren aurka ariko dira.

Andatzatik barrena Zubietara, igandean

Aizkardi mendi taldekoak Zubietara Olaederra kiroldegitik aterako dira. Irteera 08:30ean izango da

E. Maiz Villabona

Pasa den igandean Sara eta Zugarramurdi inguruko paisaiaz gozatzeko aukera izan zuten Aizkardi mendi elkarteak antolatutako ir-

teeran parte hartu zuten 28 mendizaleek. Ibilbidean zehar, besteak beste, Ibanteli eta Arxuria mendateak igaro zituzten.

Igande honetarako ere prestatua dute ibilbidea, Zubietara joango dira. Goiz pasako ibilbidea prestatu dute. Villabona bertatik irten eta Zubietara joango dira Andatza menditik pasaz. Edozeinek parte har dezake irteera honetan eta nahikoa da 08:30erako Olaederra kiroldegian aurrera inguratzea.



Igandean Sara eta Zugarramurdi izan ziren Arxuria tontorra igaroz. HITZA

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza

bertako egunkaria

egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegueretan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:

Araba etorbidea 5 behean • 20400 Tolosa

Herriko plaza 1 • 31800 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteko, betetzeko, jakinarazten ditugu zure datu pertsonalak TOLOSA HERRIA HEDABIDEAK S.L.-ren hitza egunkari automatizatu bati pasatuko direla, enpresak dituen eskaintzen berrimategi, zure esku dago ikusteko, zuzentzeko, ezabatatzeko eta kontra egiteko eskubideak erabiltzeko. Hala ere, zure nahiz gure gero, zure helbide honetara TOLOSA HERRIA HEDABIDEAK S.L.-Araba etorbidea 5 behean • 20400 Tolosa - edo harpidetza@hitza.info

Aurtengoak agurtu ondoren, hurrengoan esperoan daude

Atzo esan zieten agur aurtengo Ihoteei; tradizioa berreskuratuz, atsaureen kalejira koloretsua izan zen

Maier Ugartemendia Leizta

Atzo agurtu zituzten 2011ko Ihotek Leitzan, eta jada 2012koen zain daude. Ihoteei agur esateko ekitaldiz osatutako eguna izan zuten atzokoa.

Eske-larien eta atsaureen eguna izan zen Ihotetako azkena. Goizean, ohiturari jarraituz *eskelariak* Erasote auzora joan ziren puska bila. Ohitura honekin jarraitzen duten hainbat herritar ibili ziren eskean. Izan ere, eskean gero eta baserri gutxiagotara joan arren, *eskelarien* kopuruak gora egiten du urtez urte.

Batzuk eskean zebiltzan bitartean, magia gustuko dutenek Txan magoaren emanaldiaz gozatzeko aukera izan zuten zinema aretoan.

Goizeko eskea amaitu ondoren, puska biltzen ibili zirenek merezitako azken bazkaria izan zuten Aurrera elkartearen Hotzari aurre egiteko primeran etorri zitzaizkien *eskelariei* bazkari bero beroa.

Arratsaldean, berriz ere, umeek izan zuten festaz gozatzeko aukera. Frontoian puzgarrietan gurgura ibili baitziren saltoka.

Tradizioa jarraituz

Ilunabarrarekin batera, atsaurek hartu zituzten Leitzako kaleak. Atsaureen tradizioa zehazki nondik datorren ez dakiten arren, atsaure edo atsauretu izena «atso-aguretu»-tik dator, hau da, atso-agure bihurtzea da atsauretzia.

Orain dela, 25 urte inguru Leitzako lagun talde bat atsaureak berreskuratzen saiatu zen arren, bost bat urtez atera ondoren, ez zuten aurrera jarraitzerik izan. Baina, orain dela 4 urte inguru beste herritar batzuk tradizioa berreskuratzen saiatu ziren, eta horretan dabilta oraindik ere. Badi-rudi atsaureak ganberro xamarrak zirela, umei segika ibiltzen omen ziren, dantza egiten zuten eta nesken atzetik ere ibiltzen ziren. Gau-ekzikile jotzen zutenean, ordea, aurpegiko zapia kendu eta etxera joan behar izaten omen zuten, bestela, udaltxeko *albiantearekin* arazoak izaten omen zituzten. Atsaureen ezaugarrietako bat txapel ikusgarriak ematea da eta beste ezaugarri garrantzitsu bat, aurpegia estalita ematea, ez baitzuten ezagutuak izaterik nahi.

Atsaureen ondoren, 21:30ean Torrea tabernan afaria izan zuten leitzarrek jai giroan jarraitzeko. Ihoteen azken gauean parranda egiteko aukera ez zuen galdu bat baino gehiagok. Horretarako, Gaubela musika taldearen laguntza izan zuten.



Pilotalekuko puzgarrietan ume ugari izan ziren. M. UGARTEMENDIA



Atsaureak plazan bildu ziren, kalejiran atera aurretik. M. UGARTEMENDIA

Hilberriak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



**AINHOA HOLGADO
TENA**

*Atsekabe une hauetan
gure besarkadarik estuena*



Tolosan, 2011ko urtarrilaren 26a

**HILETAREN
BALIOA**
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada eni peribatzen dugu pertsona bakoitzak bere neumiko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko gutxieta egokitzen diren Hileta Zerbitzu Paketak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazena da galku duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com



GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	6º
HOTZENA	3º

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orea, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agurrak



Zorionak!

June (Berrobi). Zorionak eta segi orain arte bezala, June. Ondo-ondo pasa 8. urtebetetzean.



Urte askoan!

Joseba Rojas Gracial (Alegia). Gaur 6 urte. Zorionak etxekoan eta bereziki Yelenaren partetik.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz auzoa, 9. 943 67 5118.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea, 43. 112.

Urte askoan!

Aimar Artola Otegi (Abaltzisketa). Bihar 8 urte. Muxu handi bat aiton-amonen partetik.

Urteko kobraketa kanpaina abiarazi du HITZAK

Kuota 62 eurokoa da; kobraketa inguruko gutuna bidaltzen hasi da jada TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA

Erredakzioa

Hasi da urte berria eta horrekin batera iritsi da TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN kobraketa kanpaina. 2010. urte latza izan zen; krisiak jo gaitu batetik, eta papereko komunikabideen orain arteko eredia ere kinka larrian dago, bestetik. Hala eta guztiz ere, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK bi eskualdeetako berriak bil-tzen eta zabaltzen jarraitu du eta urte honetan ere horretan ariko da buru belarri.

Horiek horrela, 2011ko urtarri-laren 1etik abenduaren 31a bitartean TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN harpidetza kuota 62 eurokoa izango da, BEZA barne. Aurten, 189 ale egingo ditugunez, harpidedunek HITZA bakoitzaren-gatik 0,33 euro ordainduko dituz-telarik.

Harpidedunek, kobraketa inguruko xehetasunak azaltzen dituen gutuna jasoko dute dato-ren astean eta jakin harpidetzen fakturazioa 2011ko urtarriaren 31ko datarekin egingo dugula. Ordainketa egiteko kontu korronte zenbakia emana dutenei, dirua datorren otsailaren 4an ko-bratuko diegu.

Ordainketa transferentzia bi-dez edo eskura egiten dutenei, faktura jaso bezala ordaintzeko eskatzen diegu.

Zozketak

Kontu korronte zenbakia emana duten harpidedunen eta otsaila-ren 15a baino lehen ematen digu-

tenen artean, Tolosako Fronton-jatetxean bi pertsonentzako otor-dua zozkatuko dugu.

Era berean, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA gure harpide-dunen artean banatzeko modu-rik egokiena, gure banatzaileek harpidedunen atariko giltzak edukitzea denez, orain arte beren atariko giltza eman izan diguten harpidedunei eta otsailaren 15a baino lehen ematen dituguten artean, Tolosako Lizarribar Oineta-koak dendan zapata pare bat zoz-katuko dugu.

Irabazleen izenak, datorren otsailaren 18ko TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAN argitaratuko ditugu.



harpidedun izateak badu saria

① Otordua

Tolosako **Isastegi Sagardotegian** bi pertsonentzako otordua

Aldaba Txiki auzoa • TOLOSA
Tel.: 943 652 964 • Faxa: 943 655 632
isastegi@isastegi.com • www.isastegi.com

② Sarrera pare

Uzturpe Ikastolaren Kultur Astearen baitan **Alurr** dantza taldeak eskainiko duen **Oinazez** ikuskizunerako sarrera pare

Urtarrilak 28, Ostirala • 22:00etan Ibarako Belabieta Kiroledegian

③ Sarrera pare

Pirritx, Porrotx eta Marimototxek eskainiko duten **Ongi etorri Pupu eta Lore** ikuskizunerako sarrera pare

Otsailak 4, Ostirala • 18:00etan Ibarako Belabieta Kiroledegian

④ 2 sarrera pare

La Guinda taldeak eskainiko duen **Echale Guindas** kontzerturako bi sarrera pare

Otsailak 4, Ostirala • 20:30ean Tolosako Leidorren

Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zehar] **eskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz** Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunean, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

harpidedunen **TXOKOA hitza** info